# ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

202n. zenbakia / abendua
1995

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**OLEAGA'TAR JESUS**
**– EUSKERAZALEAK ALKARTEA'REN SORTZAILLE-TALDEKOA**
**– EUSKALERRIA'REN ADISKIDEEN ALKARTEKOA**
**– ARRATIA'N 1995-9-23'AN OMENDUA**

# EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

**Bizkaiko Batzordea**

Bilbo, 1995-eko agorrila

Adiskide begikoa:

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Biakaiko Batzordearen Zuzendari Batzak, here azken batzarrean, Arratiara ostera bat egitea erabagi eban, Zeanurira, ain zuzen.

Elkartearen Estatutoen arabera, orain berreun urte baiño geiago egiñak, Euskalerriaren garapen eta aurrerapenaren aide pilatu bear ditugu gure alegiñak, beti arrazoiaren eta ekintza eragilearen hide zuzenetik, beste lotura barik. Orregaitik, kultur-ekintzen barruan, Elkartearen izangoaren barri emoten dogularik, euskal geografia eta historia obeto ezagutzen saiatu bear dog!). Ona emen zergaitik goazen Arratiara.

Zertarako? Batzar aretan erabagi zanez, Osoko Bazkide dan Jesus Oleaga Etxeberria jaunari, Bizkaiko Batzordean Zuzendari Batzaren idazkari lcgez, egin dituan bean-en eta eskaiñi dauazan laguntzen ordain eta eskerrez, ondo merezia dauan goratzarrea opatzeko.

Guztiok daukagu gizon zintzo eta Ieialtzat. Zeanurin, here jaioterrian, eta, ain zuzen, -egitaraua atzeko aldean- entzute aundia lortu dauan bertako Lanbide Eziketa Eskolan.

Eskola onen aide, talde lanean, 1965-etik alegindu zan Oleaga Etxeberria Adiskidea, orain aitatuko ez ditugun Euskalerriaren eta, batez he, Bizkaiaren mesedetako beste ekintza eta eginkizun askotan legez. Goratzarre au Irailaren 23-an ospatuko dogu.

Atsegin jat guzti onen barrí zuri emotea. Uste dot, esandakoa aintzat artuz, Zeanurira joan naiko dozula. Orretarako, irailaren 5-etik, arratsaldeko 5-etatik 8-etara, Begoña Orueta andreari (Batzordearen ldazkaria) deitu zcinkio, hidaia ondo atontzeko, onako telefono onetara: 442 52 88.

B ihotzez

RAFAEL OSSA ECHABURU

## EGITARAUA

| | |
|---|---|
| 10,00-ak. | — Bilbotik urteera (autobusean) Batzordearen egoitzatik: Maria Díaz de Haro, 11. |
| 11.00-ak. | – Meza Mikel Deunaren Baseleizan, Artean, Eusebio Ozerinjaregui abade jaunak emona, eta Arratio Abesbatzak (Igorre) abestua. |
| 12,30-ak. | — "Zulaibar" Eskolan eginkizuna:<br>- Eusebio Larrazabal, Zeanuriko Alkate jaunaren ondo-etorria eta agurra.<br>— Rafael Ossa Etxaburu, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Bizkaiko Batzordearen Lendakari jaunaren azalketa.<br>—Jose Ignacio Gorostizagoiza, aitatu Eskolako Zuzendari Jaunaren berbaldia, ikastetxearen lan eta eragina eskualdean aztertuaz.<br>—Adrian Zelaia Ibarra, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendari oi jaunak Jesus Oleaga Etxeberria jaunaren biografia ("Bear dan moduko bizkaitarra").<br>— Oleaga jaunari gomutagarri opariak eta onen berbak.<br>— Jose Maria Aikart, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendari jaunak eginkizunaren amaiera. |
| 14,30-ak. | — Lagunarteko bazkaria eta, ondoren, Basilio Pujana bertsolari jaun ezagunaren jarduna. |
| 17,00-ak. | — Eskolaren atarian Arratiako Eskolen (Igorre eta Zeanuri) dantzari eta txistulariak. |
| 17,30-ak. | — Ekinaldiaren amaiera "Agur Jaunak" abestuaz. |
| 17,45-ak. | — Bilborako urteera. |

# "ZER"-EN BERREUNGARREN ZENBAKIA: ALBISTE POZGARRIA

Ixillean, apaltasun aundiz eta ezelango zaratarik egin barik, "ZER" aldizkaria, geure aldizkaria, bere berreungarrren zenbakira eldu jaku. Eta onek garrantzi aundia daukala ba diñot, ez dot uste gauza geiegirik esaten diardudanik. Ezta gitxiago be.

Milla bederatzireun eta irurogeitamazazpigarren urtean "EUSKERAZALEAK" Alkarteko kideak sortu ebenetik "ZER" argitaratu izan da, urtero-urtero, eta utsik egin barik, meritu aundi-aundia dauana eta amazortzi urte igaro dirala gogoan artu ezkero.

Eta ibilbide luze an egiterik izan badau, bera ataraten eta osotuten jo ta su dabiltzanen alegiñai eskerrak izan da, "ZER"-en zuzendari eta arima bizia dan Olazar tar Martin, nabarmenduten dogularik, batez be.

*

"ZER"-ek, bere joanean, ez dau iñoz bide errezik, ez asieran, ezta orain be.

Danok ezagutzen doguzan arrazoiakaitik, au da, "el batua" dalakoa, "h" izki alperra erabiltea... eta abar. oso gitxi lagundua izan da eta da gaur egun be.

Ori ta guzti be, adorea galdu bearrean, amor emon barik, aurrera jarraituten jakin izan dau eta orren ondorioa ikusten dogu gaur, gure eskuetan izan dogun ale onetan.

"ZER" sortukeran. here sortzailleak euskerazko irakurleen kopurua geiagotu gura izan eben, bizkaiera baztar guztietara zabalduten eben bitartean, lagun-arteko solasalditxo atsegin bat balitz lez, illero-illero.

Eta on lortzearren, mailla aundiko idazle eta gizon lau eta apalak ekin eutsoen elburu orreri eta or doguz eten barik bere lanean: Zubikarai, Onaindia, Muniategi, Olazar, Solozabal, Estonba. Landajuela eta beste ainbat eta ainbat lagunek esku artu dabe zeregin onuragarri orretan, doan eta euskerarenganako maitasunez.

Batzuk joan dira betiko eta beste batzuk gure artean doguz. Guztiei gure eskerronik sakon eta benetakoena zor dautseguz.

### "ZER"-en garrantzia

"ZER" dogu, Bizkaiko euskaldunoi bizkaieraz eta erri-euskeraz irakurri eta idazteko aukera emoten dauskun ALDIZKARI BAKARRA. Eta ortik dator bere garrantzia eta bearra.

Gaur egun, "el batua" dalakoaren aize zakarrak aide guztietatik joten dabenean, "ZER"-ek zintzo eta gogotsu bere bidea, aurrera jarraituten dauala jakiteak poz aundia eta kemen barriak emoten dauskuz bizkaiera eta erri-euskeran datzala euskeraren etorkizuna uste dogunoi.

*

Ori dala-ta, "ZER" here eungarren zenbakira eldu zanean arrakasta aunditzat jo ha gendun, zer esan geinke, orain, beste eun zenbaki bete dituanenan?

Amaiera Iez, nire zorionik beroena bialdu gura neuskioe "ZER"-eri eta bent egiten dabenai, bidezkoa danez. Eta, berreungarrenera eldu ondoren, irureungarrena, noiz elduko zain geratzen gara ta.

ZORIONAK ETA JARRAITU AURRERA. BIZKAIERA ETA ERRI-EUSKERA BIZIRIK DIRAUELAKO ZEURE ORRIALDEEI ESKER.

1995ngo iraillaren l3an.

MALAX-ETXEBARRIA TAR YON

**IPUIN-SARIKETA**
**(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k. urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
— Ipuiñak asmaturikoak edo errian batuak izango dina, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
— Luzeera iru orrialdetik Ian orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2. eskoia) egon hear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dina:

1.° 40.000 pezeta.
2.' 30.000 pezeta.
3.⁴ 20.000 pezeta.
4.10.000 pezeta.

Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: Epea abenduaren azkenera-arte luzatzen da.

**EUSKERAZALEAK**

# E.A.J./P.N.V. ETA EUSKAL KULTURA

Garrantzi aundiko gertakizunak ospatzen ditu, aurten P.N.V. delako eusko alderdiak. 1994'garren urteak asko esan nai du aberzaleentzat. Denen aurretik E.A.J./P.N.V. elkartearen sortzaileak, Sabino Arana'k jasotzen ditu txalo ederrenak, euskotar guztiz argia bezala, batez ere aberzaleen elkartea sortu zuelako.

Gaiñera E.A.J./P.N.V.'ek eun urteko Euskalerria'ren edestia idatzi du. Ezin aztu bi gai nagusi oiek, Sahino eragilleak eta eun urteko edesti orrek ernan diote. Euskalerria'ri indarra ta nortasun berexi bat.

Ezin da Euskalerri'ko edestirik egin E.A.J./ P.N.V.'ren aipamen luzerik idatzi gabe: asierak, zabalkundea, Lizail-a'ko Estatutoa, guda, espetxean zigoraldia, jaurlaritza, erbestean garai luzea, aberrian borroka, Gernika'ko Estatutoa ta abar. Ori dena mila ta milaka euskaldunen edestia da, gañera etorkizunari hegira ta zai dagona.

*>„ *

Nola aztu ditezke orrelako lanak? Zoritxarnez gertatutako gauza da.

Orain dela gutxi, ikastolentzat liburu bernia sortu dute. Euskal kulturaren oñarriak agertzen dizkigute: oitura zarrak eta berriak, eresia, jauziak, idazleak, euskotarrak eta euskarazaleak. Liburua arrigaria ta polita benetan. Amets bat... baiño akats aundi batekin. Ez du Sabino Arana aipatzen, ezta ere E.A.J./P.N.V.'rik.

Ez dut liburuaren izenik emango. Ez diogu egilleari mesederik doai egin nai.

Orain galdera bat: gaur egun nola idatzi diteke liburu bat Euskalerria'ri buruz, Sabino ta E.A.J./P.N.V. aipatu gabe? Ori egiteko buru ariña euki bear. Ez aztu orrelako asko ditugula Euskalerria'n.

Orregatik gure edestia kultura biurtu bear dugu, bi arazoengatik. Bat; denak edestiaren aztarnak arki ditzaten. Bigarren; euskotar bakoitxak, oroigarria eskutondoan euki dezan. Bai, edestia naitanaiez kulturalizatu bearra dago. Nola?

Biderik egokiena E.A.J./P.N.V'ren urteburu oiek, aitzakia bezala artuta, domiña edo medaloia sortzea da, ekintza berexi orren oroigarri ta ospekunde direlako. Domiña oiek gure edestia gaurkoratzen digute. Naiz edestiaren ospekundeak igaro, gelditzen zaizkigun ezaugarriak, oroigarriak dire. Ortarako dauzkagu domiflak; gertakizun aundi batzuen orioigarriak bezala.

* * *

Nazio aundiak eta txikiak, aberriaren edestia ospatzeko ta goi goian gogoan eukitzeko, urrezko, zillarrezko ta burni-gorrizko DOMIÑAK egiten dituzte. Kulturaren bidez edestiak bizirik irauten du sendietan. Etxean bitxi oiek gordeta eukita aberriaren emaitza ta zaletasuna pixten digute, orrekin gaiñera gure kultura sortzen dugu. Jakiña, ortarako gai berexiak bear.

E.A.J./P.N.V.'ren eunurtebetetzea ospatzen dugula, nola ez dute sortu alderdiaren arduradunak, sillarrezko ta urrezko DOMIÑAK, gure edestia, sendietan, gauza aundi bat bezala gogoratzeko, baita euskal kultura ereiteko?

Domiñaren aide batean, Sabino Arana'ren irudia jarri bear lukete eta bestean alderdiaren izkiak. Milaka aberzalek gogotik erosiko lituzkete. Utsune bat gelditzen da bete bearra, gure aberria indartzeko.

LATXAGA

## IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etserik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2⁰ eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

# "JESUKRISTOREN BERRIONA"

Zorionez, ba dagoz gure Errian gizon isil, apal eta langileak, erlearen antzera beti lanari ekin eta inon diran lorarik ederrenen ezti gozoa ataraten dakienak. Euren etxeko gelan sartu, eta gaur bai, eta biar be bai, esku artean artutako lana aurrera eroaten dabe; eta, gitxien uste danean, frutu ugari eta ederrak eskeintzen deuskuez, guztion poz eta onerako. Olakoxea dogu, aspalditik, gure Agustin APAOLAZA, Estibalizko beneditarra.

Komentu barruko zereginak bete, eta ganera 5 liburu txalogarri argitaratu ditu azken urteotan, bostak ari berekoak: Jaungoikoaren berbea euskeraz eskeinia. Ona emen bost liburuon izenak: SALOMOEKIN OTOITZEAN, ASIERA (Genesis), IRTEERA (Exodo), SAN MARKOS-en EBANGELIOA eta, 1994 urtean, JESUKRISTOREN BERRIONA.

Leenengo lau liburuak, azken baten, egitura bardiña edo antzekoa dauke: sarrerak, liburuaren zatiketa eta zati bakotxaren sarreratxuak, textuaren euskal itzulpena, Eleizearen argitasunak textuon inguruan, eta, azken otoitz labur mamintsuak, irakurritako gaiaren aritik. Danean erakusten deusku Apaolazak here maisutasun andia, oi dauan apaltasunaren azpian. Bere sarrera eta adierazpenak jakituriaz ganezka dagoz, eta irakurketa ta gogoeta askoren frutu dira. Ez dogu Apaolaza edozelango itzultzailea, Bibligaietan gorengo ikasketa luzeak egindakoa baino. Ez dakit zenbateraino zabaldu diran liburuok; baina, erlejino-gaietan, zénbat liburu argitaratu da euskeraz Apaolazaren host liburuok baizen sakon, dotore ta goi-mailako jakituriaz jantzirik? Nik, neure aldetik, bein eta barriro esker ona, mirespena eta txalorik beroena agertu gura neuskioz Estibalizko adiskide onari.

Azken liburua, JESUKRISTOREN BERRIONA, ari berekoa da, lau ebanjelioen euskal itzulpena dalako; baina ba ditu gauza bereziak be: besteetan baino sarrera laburragoak, egiturea berea bestelakoa, 4 ebanjelioak banan-banan baina liburu bakarrean. Itzulpena, erreza, argia, txukuna, edozeinek pozik irakurteko modukoa. Lekutan dago Apaolazaren errieuskera gozo au, gaur iruntzi ezinik irakurten doguzan ainbeste itzulpenetik! Liburu bakotxean, ebanjelioko testua gai berezietan eskeintzen dau, eta zatitxu bakotxaren aurrean sarrera labur argiemoilea. Azkenean, lagungarritzat, ainbat eratako ERASKIÑAK.

Leizarragaren TESTAMENT BERRIAK, Elizen arteko BIBLIAK eta gure Kerexetaren EUSKAL BIBLIAK, zorionez, entzute andia ta zabala izan dabe azken urteotan. Apaolazaren itzulpen barri onek izan begi zor jakon lekua euskal letren munduan eta, batez be, fededunon biotzetan. Eta frutu eder au emon deuskunak ekin deiola, osasuna dauan artean, "BIBLIAREKIN OTOITZEAN" deritxon sail txalogarriari.

K. ETXENAGUSIA

**Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.**
Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

# EUSKALDUNAK ETA FUEROAK (VI)

**Taldeen-arteko burrukak...** Esana degu, Santiago'ra-bidean, eta bertako erromesak babesteko, sortu zirala lenengo iriak... Atzerritarren eta kanpokoen erasoaldietatik babesteko sortu zirala, gero, beste batzuek... Eta esan bearrean gera orain, bertako taldeen-arteko burrukak sortu-erazi zituala, geroago, beste batzuek... Eta azken-auek aipatuko ditugu orain batik-bat...

**Logroño...** Logroño-sortze agiriak garbi-asko azaltzen dig(' oraintxe esan degun au... Onela bait-dio sortze-agiri orrek: "Yo, Alfoso, a una con el consejo de mi esposa Berengala, hacemos esta carta a aquellos pobladores de Logroño... con objeto de defenderse contra los malhechores y banderizos que agitaban la tierra...".

Eta taldeen-arteko burruka auek zabaltzen joan ziran erriz-erri, izurrite bat ba'lira bezela... Eta talde bateko edo besteko aitortzen ziran bertako sendiak... Eta 116 famili ditugu Bizkaia'n Oñaz-tar eta Ganboa-tarren-artean banatuak... 16 etxek osatzen dute Gipuzkoa'n Aide-Nagusien taldea, Soraluce'k esaten digunez... (Parientes Mayores)... Eta auek dira Araba'ko taldeen-buru bezela aipatzen diran sendi batzuek: Guevara-tarrak, Mendoza-tarrak, Ayala-tarrak, Calleja-tarrak... eta abar...

Eta izan ziran beste izen auekin ezagutuak izan ziran taldeak ere: Beamonteses-Agromonteses, Almoravides-Cascanteses, Giles-Negretes, Zuñigas-Carbajales...

**A quien valía más... Ea nor zan geiago...** Taldeen-arteko burruka auen zergati bakarra, auxe izan zan: A QUIEN VALIA MAS... Eta au aitzakitzat artuta, astakeri aundiak egin ziturten talde auek: "daños, robos e muertes en estas provincias de Guipúzcoa, Vizcaya y Alava, e Encartaciones... para mandar contra vosotros penas de muerte y perdimiento de bienes...". Eriotzaz zigortzeko mudukoak, alegia...

Eta mendekua, jolas bat bezela arturik, onelako agindu bildurgarriak ematen ziturten, ezertxo-txarik egingo ez ba'luteke bezela: "Piérdase Unzueta y Bergara... " ..."que es fuego queme Aramayona..." ..."Incendiemos Mondragón...". Eta torre-etxe batek bestearen aurka ekiten zion burrukak, eta gaztelu batek bestearen aurka... Eta eraso oiek, geinetan, usterik-gutxieneko orduetan izaten tiran eta gauez... Eta sakabanaturik zeuden etxeak ere, ez ziran taldeen-eraso oietatik libre izaten... Eta ez ziran urte bateko burrukak izan, urte askotakoak baizik...

Eta bein talde bati bere izena ematen zionak, ondo zekian orrek, talde orreko buruzagiaren esku urten zituala bere bizitza, here izen-ona, here dirua, eta bere sendi osoa... Eta ez burrukak iraungo zuan bitarterako bakarrik, bizitza osorako baizik...

**Aide-Nagusiak... (Parientes Mayores).** Bi taldeetan zeuden banatuak Gipuzkoa'ko Aide-Nagusiak... Oñaz-tarrak ziran batzuek eta Ganboa-tarrak besteak...

Auek ziran Oñaz-tarren taldea osatzen zuten etxe edo sendiak: Lazcano-tarrak, Loyola-tarrak, Berastegi-tarrak, Gabiria'ko Agirre-tarrak, Beasain'go Arriaran eta Yarza-tarrak, Ernani'ko Alzaga-tarrak, Eibar'ko Amezketa eta Unzueta-tarrak, Astigarraga'ko Murgia-tarrak, Bergara'ko Ozaeta-tarrak, eta Oiarzun'go Gabiria eta Ugarte-tarrak...

Eta beste auek Ganboa-tarren taldea osatzen zutenak: Elgoibar'ko Olaso-tarrak, Azkoiti'ko Balda-tarrak, Zarauz-tarrak, Aizarna'ko Iraeta-tarrak, Zumaia'ko Zumaya edo Ganboa-tarrak, Elgeta'ko Jaolaza-tarrak, Cegama-tarrak, Zizurkil'go San Millan edo Donemiria-tarrak eta Usurbil'go Atxago-tarrak...

Eta bitxikeri an emen: Ziortza'ko lekaideen elizan (Zenarruza'n) dago Eibar'ko Unzueta-onaztarren illobia... Eta bi itz auek azaltzen dira bertan: "Todos Magnánimos"... Bizitzan ain-arro izan ziranak, il-ondoren ere, arro...

Eta auek ziran, Bizkaia'n, bertako taldeak osatzen ziturten etxe edo sendiak: Butron-darrak eta

Muxica-tarrak, Urkijo-tarrak eta Arteaga-tarrak... Enkart-errikoak ziran Velasco-tarrak eta Salazar-tarrak... Oñaz-tarrak ziran Salazar-tarrak, eta Ganboatarrak Velascotarrak, eta etenik-gebeko burrukan bizi ziran bi talde auek... Oñaz-tarrak ziran ere Gordejuela'ko Largacha-tarrak eta Palacio-tarrak, eta Ganvoatarrak Ibarguen-darrak, eta auen lagun ziran, Marroquines tarrak...

Trucios-ibarrean ez zuten taldeen-arteko burruka au XV-gizaldi arte ezagutu... Pedro de Pando it-zanean sortu baitziran bertan Marroquines-taldea eta Negretes-taldea... Eta berdin Carranza'ko ibarrean ere... Bi talde auek zeuden bertan: Giles-tarren tal dea bat eta Negretes-taldea bestea...

Lazcano-tarrak, Gipuzkoa'ko oñaztarren buruzagiak, iru torre-etxe edo gaztelu ziturten Araba'n: Cotrasta'n bat, Alegria'n bestea eta Galarreta'n irugarrena... Bizkai'ko Muxica'k eta Butron'ek berriz (Bizkai'ko oñaztarrak auek) Araba'ko Aramayona'n zuten beren Barajuen torre-etxe edo gaztelua... Eta Ganboatarrak ziran Abendaño-tarrak Araba'ko Villarreal'en berrena... Eta gaztelu edo torre-etxe auek izan ziran bereziki taldeen-arteko gorrotoari bizi-bizirik eutsi ziotenak, eta auen-artean aipamen berezi bat merezi dute Barajuen'go gazteluak (oñaztarra au) eta Villarreal'goak... (ganboatarra beste au)...

Onela dio Llorente'k: "Para remediar estos daños acudieron los vizcaínos al rey Enrique III, pidiéndole que mandase formar una hermandad General de Vizcaya, contra los malhechores..." (1312-1393)... Bahian Novia Salcedo'k dionez: "ya antes, doña María Díaz de Haro, Señora de Vizcaya, mandaba, en 1329, que los Alcaldes de la Hermandad ejecuten a los banderizos que se hallaren en culpa...".

**Preste Juan...** Larramendi'k esaten digu au: Gipuzkoa'ko eta Euskal-erri osoko erriak asi zirala Anaidian sartzen... Onaemen here itzak: "unos antes que otros, y en cada pueblo con todos los solares se agregaron a la Hermandad...". Eta "Anaidi" onek sortu zuan alkartasunari esker, menderatu al'izan ziturten gipuzkoarrak, gero-ta-aulagoak biurtzen ari ziran Aide Nagusiak... Eta ona, nola adíe razten zuan au Preste Juan'ek: "Los hidalgos y caballeros por más ilustres que sean, si tienen poco y pueden poco, téngase por dicho que les han de tener en poco...".

Esan dezagun, bada, iri-sortu berriei esker, Anaidiari esker, eta agintarien ausardiari esker, galtzen joan zirala beren indarrak, leen ain-indartsu agertzen ziran talde aiek.

Eta esan dezagun azken-batean Azkoiti'ko eta Azpeitia'ko lurraldea izan zala Gipuzkoa'n, batik-bat, taldeen-arteko burruken testigu...

**Taldeak ez dute barkatzen...** Ontzat emango zuten, bai, beaien-aurkako burruka garbi ta gogor bat sortu izan ba'lute, baiñan ez dute, iñolaz ere, ontzat ematen Anaidi orren sorrera... Eta onaemen beaien itzak: "por haber hecho hermandad contra ellos"... Eta Anaidi onek adierazi nai duan elkartzea, on da onartzen ez dutena... Ondo bait-dakite alkartze oni esker: "se pudo hacerles derribar sus casa-fuertes; muértoles deudos y parientes: querídoles quitar sus anteiglesias y Monasterios...". Eta au dala-fa, leen areno bildurgarriak ziran taldeak, bat egiten dute orain... Eta eriotzarañoko burruka baten deia zabaltzen dute Gipuzkoa'ko 8 errietan...

**Burrukarako deia... (erronka)...** Oraintxe aipatu degun burrukarako dei au (erronka) Miranda de Iraurgi'ko ateetan agertu zan josia 1456-ko uztaillaren 31'an (Miranda de Iraurgi au, Azkoitia zan). Eta auek ziran burrukarako dei on izenpetu zuten Aide-Nagusiak: Lazcano-ko Lopez, Ganboa-ko Ruiz, Balda'ko Ladron, Loyola-ko Perez, Burton'go Juan, Zarauz-ko Garcia, Zegama-ko Ladron... Oñaztarrak batzuek eta Ganboatarrak beste batzuek... Eta ala ere, ez da dei ontan, berezkuntzarik egiten... Egia da, erriko ateetan jartzen zala dei au, baiñan dei au pertsona jakin batzuei zuzendua egoten zan: Olano zan Azkoiti'n pertsona ori, Sasiola Deba'n, bi ziran Motriku'n, beste bi Getari'n, iru Azpeiti'n eta Segura'n, eta 6 Tolosa'n... Auek ziran mendekatu-bearrak...

Markina'tik-gertu dagoan Hurbitarte tokian (Elgoibar) izenpetu zuten Aide-Nagusiak burrukarako erronka au 1456-ko urtaillaren azken-larunbatan... Fernam Mz de Garagarza izan zan ixkibaua...

**Dei edo erronka auen adibide bat...** Adibide onek azalduko digu argi-eta-garbi zer-nolakoak iza-

ten ziran dei edo erronka auek... Orrelako erronka bat jo zuan, Elorrio'n, Santxo de Marzana'k Pedro de Ibarra'ren aurka 1468-ko otsaillaren 22'an... Eta ixkribau baten bidez, jo ere... Onela bait-dio berak: nere dei au "está signada de Escribano público, e mandé poner en las puertas de San Torcaz de Abadiano, do es usado de sacar semejante desafiamiento...". Eta bertan esaten duanez, leen lagunak ba'ziran ere, orain etsai dirala... Eta bere etsai auen artean sartzen ditula ere, Pedro de Ibarra'ren semea, anaia, koñatua "con todos los pareitntes del tina je"... Eta eme egoteko esaten die "de dia e de noche" al-duan kalterik aundiena egingo dielako "como a enemigos capitales desafiados"...

**Baiñan ez zan burrukarik izan...** Eta ona zer gatik izan etzan: "Porque el año 1457 vino a Vizcaya el rey Enrique IV a poner coto a los desmanes que los banderizos cometían: mandó destruir torres y casas fuertes: y desde Santo Domingo de la Calzada dictó sentencia desterrando a los caballeros que más se distinguían en estas luchas...". Eta "a Tierra de Moros" erbesteratu zituan 1457 ko apiriliaren 21'an... Eta bertan ziran, erregearen erabaki au jasotzen, Muxica, Guevera, Olaso, Lazcano, Balda... Eta onela zion erregeak emandako erabakiak: "A Vos, Iñigo de Guervara, a Vos, Pedro de Abendaño, a Vos Juan López de Lazcano..." eta beste guztiak aipatzen ditu ondoren... "condeno a pena de destierro en servicio de Dios y mío y en defensión de la fe católica"... eta emandako zigor au betetzen ez ba'dute "que vos corten las cabezas co un cuchillo de fierro agudo"...

**Malaga'ko ESTEPONA eta Cadiz'ko XIMENA DE LA FRONTERA...** Malaga'ko Estepona'ra eta Cadiz'ko Ximena de la Frontera'ra izan ziran erbesteratuak Euskal-erriko Aide-Nagusi auek (Tierra de Moros). Bi urtetarako gitxi batzuek eta iru eta lau urtetarako nagusienak eta geintsuenak... Ala-nola, Abendaño eta ARteaga Estepona'ra iru urtetarako, Ximena de la Frontera'ra Lazcano iru urtetarako au ere, Estepona'ra Olano 4 urtetarako, eta Loyola eta Balda Ximena de la Frontera'ra lau urtetarako... Baiñan ez zitzaion au-dana naikoa iruditu erregeari, eta 1471'an Pedro de Velasco bialdu zuan lur auetara: "Todavía más tarde parecióla (erregeari) ser necesario ponerles freno (gipuzkoarrei eta bizkaitarrei) para lo cual acordó de enviar en aquellas provincias a don Pedro de Velasco, Conde de Haro...".

**Torre-etxeak lurrera...** IV-Enrique izan zan Euskalerri'ko torre-etxe nagusienak eta geienak bota-erazi zituan erregea... Eta baita zutik gelditue-takotan arrizko goiko solairuak bota-erazi zituana...

V Fernando'k, berriz, galerazi egin zuan, 1498 ko abenduaren 29'an, torre-etxe berriak, edota gaztelu berriak, Euskalerria'n jasotzea...

Eta alaxe segi izan zuten orduko erregeak, alik eta Catolicoak deituriko erregeak erreiñuaren jabe egin ez ziran artean... Onela bait-dio Eduardo Ezkarzaga'k: "quienes entronizando las justicias, comenzaron a cesar de tal manera por la bondad de Dios, los bandos de Oñaz y Gamboa...".

**Mudejar-artea...** Ez ziran alperrikakoak izan, Aide Nagusiak atzerrian (tierra de moros) igaro zituzten urte aiek... Aieri esker, sartu bait zan Euskal-erria'n mudejar-artea... Eta arte orretaz egiñak izan ziran gero, zenbait etxe gure artean...

Ez genduke, ala ere, atzalburu au amaitu nai, Micaela Portilla'ren aipamen bat egin-gabe... Onek dionez, gure taldeen-arteko burruka oietan ez zan arrokeria bakarrik izan (ea nor zan geiago) izan zan ere, politika joko bat... Esate baterako, Oñaz-taldeko Mendoza-tarrak Castila'ra jotzen zuten eta Ganboa-taldeko Guevara-tarrak berriz, Naparroa'ra... Eta au ez da arrokeria bakarrik, politika-jokabide bat ere ba'da au...

DONATO ARRINDA
ANASTASIO ALBISU

# OLEAGA TA ETXEBARRIA'TAR JESUS'ERI GORATZARREA




Ederra benetan, iraillaren 23'an, OLEAGA'tar JESUS Jaun eta adizkideari egin jakona. Goratzarre on Zeanuri'n egin jakon, geure JESUS angoxetarra dalako, ederto ta ondo irabazita euki dauan zeanuritar Lege-Gizon ospetsu ta bakezale orri.

Goratzarrea EUSKALERRIKO ADIZKIDEEN ELKARTEAK (Real Sociedad Baskongada de Amigos del País) izan zan antoluatu ebana.

**BASELIZAN**

Asteko, goizeko 11'etan, Meza Deuna izan genduan ARTEA'ko (ARTEAGA'ko esango neuke, egokiago deritxatelako) MIKEL DEUNAREN Baseliz txikian; txikia bai, baiña txukuna ta polita benetan. Ikusgarria da ta ezagutzen ez dabenak, joan eta ikusi baiño ez daukie ta, bereala konturatuko dira ez dotela aundikeririk esan here aide.

Toki ta alderdi on guztiz egokia da, batez ere onelako ospakizun baterako. Meza emoillea zeanuritarra dan Manterola'tar Ander Abade Jauna izan zan, ango Abade Jauna (Ozerinjauregi'tar Eusebio) geixorik egoalako.

Meza bitartean Igorre'ko Abesbatzak abestu eban eta zelako abesti politak biotz-biotzez abesturikoak! Abesti orrein artean muiñetaraño sartu jatana "SANTUS'a" izan zan.

ZULAIBAR'eko IKASTOLAN

Meza Deuna entzunda gero Zeanuri'ra, ZULAIBAR auzoan dagoan "LANBIDE-IKASTEGI'ra", joan giñan. Ain zuzen be, ikastola on zabaldu ta here bidean imiñi arte Batzorde bat egoan Zeanuri'n, orrelako asmoak aurrera eroateko aurkitzen diran arazoak atondu ta zuzentzeko; Batzorde orren bazkideen artean OLEAGA'tar JESUS bat izan zan. Beraz, Ikastola orren sortzaille bat izan zala esan bear da.

## OMENALDIA

**ITZALDIAK eta OPARIAK**

Ikastola orretan itzaldi batzuk entzun genduzan eta ia danetan OLEAGA'tar JESUS'en aide beti zeozer aitatu zan. Itzaldi orrein izlariak oneixek izan ziran.

— Zeanuri'ko Alkate Jauna, Larrazabal'dar Eusebio'ren ondo etorria ta agurra, asieran agertu eskuna.

— Euskalerriko Adizkideen Elkarteko. Bizkai'ko Batzordearen Lendakari Jauna. Ossa Etxaburu'tar Rafael'ek azalketa batzuk emon ebazan.

— Zulaibar-Ikastolako Zuzendari Jauna dan Gorostizagoiza'tar José Ignacio'ren azalpenak, Ikastolaren gora-beerak eta egiten diran lanai buruzkoak izan ziran.

— Euskalerriko Adizkideen Elkarteko Zuzendari izandakoa. Zelaia ta Ibarra'tar Adrian'en itzak! Jaun onek OLEAGA'tar JESUS'en bizitzaren bereizgarri batzuk edestu euskuzan, batez ere here gizontasuna, apaltasuna ta bakezaletasuna goratuz, baita bere lan ixilla ta txalogarria, Bazkide orren idazkaria izan zanekoa aitatuz. OLEAGA'k egindako gauzai buruz, zenbat eta zelako gauza jakingarriak azaldu euskuzan; euren artean, geure kaltegarrizko guda aurrean, Euzkadi'ren ESTATUTO'en aide ainbat lekutan parte artu ebala, euskal izlaria lez.

- Euskalerriko Adizkideen Elkarteko Zuzendaria, Aikart'tar José María'ren itzak, eginkuzunari amaiera emoteko.

Izlari bakoitzaren txandea elduten zanean, Muniategi'tar Abel'ek ~iurkezpena egiten eban eta on itz labur eta egokiak erabilliz.

Ondoren OLEAGA Jaunari ezkeiñitako opariak bai Euskalerriko Adizkideen Elkarteko Batzordeenak eta bai Bizkai'ko Aldundiarena; azken au Erakunde orren Kultur Alduna dan Uribeetxebarria'tar Tomás'en bitartez ezkeiñita.

Oparien artean. OLEAGA'tar JESUS'en emazteari lore politakaz egiñiko txorta eder hat eskeiñi eutsoen. Ederto dago ori. JESUS'ek egindakoen lanetan, zeozer baiño geitxuagotan adoreak emongo eutso-zalakoan gagoz -eta. Gizon aundien ondoan beti biotz aundiko emakumeren bat laguntzaille zintzoa ta ixilla lez egoten oi da ta. Ziur gara orixe bera jazo dala Oleagatarren senar-emazte tartean. Onegaitik ZORION hero bat Jesús'en EMAZTEARI.

Itzaldi ta oparien ostean, biotz-ikaraz apur bat jota OLEAGA'tar JESUS'ek itzalditxo bat zuzendu euskun esanaz bere aide esaniko ainbeste gauzak ez ebala uste berak egiñak zirala ta, biotz-biotzez, danai eskerrak emonaz, bai egin eutsoen goratzarreagaitik eta baita artu ebazan opariakaitik, bere izketa amaitu eban.

**BAZKARIA** ta BE,RTSOLARIA

Jarraian eta onelako ospakizunetan genre oiturea dan lez, ikastolan benzin lagun arteko bazkari eder bat emon euskuen.

Azkenez, amaituta egoala, zeanuritarra dan Pujana'tar Basilio, bertsolari tiña ta ospetsuak, gorenetako bertso batzuk bota ebazan OLEAGA'ren gizontasuna goratuz eta, oneixek, jarraian doazanak dira:

1

Buru gora ta alai dago gaur
Gure erri Zeanuri,
Goratzarre bat eiten jako-ta
Gaur here seme bateri.
Inguru ontan alaitasuna
Besterik ez da agiri,
Ta orrregaitik astera noa
Neu bere bertso kantari,
Lora txorta bat izkindu nairik
Jesús zure omenari.

?

Zuk ba dakizu gu mutikotan
Eskola Iagun giñala,
Eta gutzako bizitza ontan
Egun onak zirala,
Gutzako ziran jolas alaiak
Tronpa ta parrantola.
Esaten euskun eskolarako
Gogo asko ez geunkala
Baña nik diñot ume denporan
Ume izan bear dala.

3

Bere garaia eldutakoan,
Erri eskola amaitu.
Andik aurrera gero bakotxak
Al eban bidea artu,
Ta askok barriz nai izan gendun
Bidetik ezin jarraitu.
IQarokoak igaro eta
Gaur barriz gana alkartu.
Eta munduan egin dozuna
Guztia maian agertu.

4

Aldi batean aurkitzen nintzan
Munduakin aspertuta.
Nere bidean gizon-gizon bat
Ilion ezin aurkituta,
Baña bat beintzat aurkitu neban
Lagun Jesús ezaututa.
Ordutik ona aurkitu nintzan
